BITARTEKARITZAKO ERREGELAMENDUA

Euskal Kirol Federazioen Batasuna

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Kirol-bitartekaritza

Bitartekaritzatzat hartzen da eztabaidak konpontzeko bitartekoa, edozein dela ere haren izena, non bi alde edo gehiago saiatzen baitira, beren borondatez, akordio bat lortzen bitartekari baten esku-hartzearekin.

2. artikulua. Araudi aplikagarria

Erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera arautuko da bitartekaritza, eta, bertan aurreikusten ez den orotan, gai zibil eta merkataritzakoetako bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legearen bidez, hura garatzen duen abenduaren 13ko 980/2013 Errege Dekretuaren bidez, eta, oro har, aplikatzekoak diren arau zibil edo prozesal guztien bidez.

3. artikulua. Esparru instituzionala

Euskal Kirol Federazioen Batasuna (aurrerantzean EKFB) da ondorengo egitekoak zuzen bete daitezen zaintzen duen erakundea: kirol-bitartekaritza behar bezala administratzea, prozedura zuzenbidearen arabera gauzatzea, bitartekarien gaitasun-baldintzak betetzea, eta izendapena gardena eta independentea izatea.

4. artikulua. Prozedurak administratzea

Erregelamendu honen arabera, EKFBk Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiari (aurrerantzean, KAEE) ematen dio bitartekaritza administratzeko ardura. KAEEk ez du berezko nortasun juridikorik eta

EKFBren menpe dago hierarkikoki, erregelamendu honek ematen dizkion ahalmenen eta eskumenen kalterik gabe.

5. artikulua. Jarduteko eremua

Nolanahi ere, Erregelamendu hau EKFBk administratzen dituen bitartekaritza-prozedurei aplikatuko zaie, baldin eta prozedura horiek bere esku-hartzearen mende jarri badira, dela aurretiazko akordioren bat dagoelako egon daitekeen gatazka bitartekaritzaren mende jartzeko, dela akordiorik ez badago ere, aldeetako batek prozedura formalizatzeko gonbita egiten diolako beste bati, eta hark onartzen duelako.

6. artikulua. Printzipio informatzaileak

Bitartekaritza printzipio hauen arabera garatuko da: borondatezkotasuna, konfidentzialtasuna, gardentasuna, eskubidearekiko errespetua, inpartzialtasuna, neutraltasuna, malgutasuna, eztabaida kontraesankorra, berehalakotasuna, independentzia, fede ona eta lankidetza, eta aldeen arteko errespetuari eustea.

7. artikulua. Egoitza

Bitartekaritza EKFBren egoitza nagusian egingo da (CPT eraikina, Makaletako etorbidea, z.g., 48991 GETXO), EKFBren beste egoitza batzuetan edo bidezko akordioak hartzen diren erakunde publikoetan edo pribatuetan egin daitezkeen jarduerei kalterik egin gabe. Era berean, aldeek elkarrekin erabaki ahal izango dute bitartekaritza non egingo den. Nolanahi ere, aldeek erabaki dezakete bitartekaritza-lan batzuk edo guztiak baliabide elektronikoen bidez, bideokonferentziaren bidez edo antzekoen bidez egitea.

8. artikulua. Hizkuntza

Bitartekaritza Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egingo da. Hala ere, auzilariek KAEEra eta bitartekariengana jo ahal izango dute beste edozein hizkuntzatan, eta kasu horretan itzulpen-gastuak beren kontura izango dira, beharrezkoa bada.

9. artikulua. Aldeen egoitza

Bitartekotza batean parte hartzen duten aldeek helbide bat jarri beharko dute jakinarazpenak jasotzeko, ahal dela baliabide telematikoen bidez. Halakorik ezean, interesatuaren beraren edo haren ordezkariaren helbidea izango da, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eta behar bezala identifikatzen ez bada, erregistro publikoetatik ateratzen dena.

II. BITARTEKARITZA-PROZEDURAZ

10. artikulua. Bitartekaritza-prozeduraren garapena.

Bat. Eskaera.

Bitartekaritza-prozedura honela has daiteke:

a) Bi aldeak ados jarrita.
b) Aldeetako batek, haien artean dagoen bitartekaritza-itun bat betetzeko.

Interesdunek idatziz eskatuko dute, eta jasota utziko dituzte tartean diren aldeen filiazio-datu guztiak, haien helbideak eta harremanetarako datuak, bai eta legezko ordezkarien datuak ere, hala behar denean. Halakorik bada, kontratu edo bitartekaritza-akordio batean txertatutako bitartekaritza-klausularen kopia erantsiko da. Halaber, bitartekaritzaren xede diren gaien azalpen laburtua aurkeztuko dute eta, halakorik bada, auziaren zenbatekoa. Azkenik, jardueren hizkuntza edo hizkuntzak zehaztuko dituzte.

Bi. Eskaera erregistratzea eta izapidetzeko onartzea

Eskaera jaso ondoren, EKFBk KAEEri igorriko dio eskaera, eta hark, hala badagokio, izapidetzeko onartuko du.

Eskaera alde bakarrekoa bada, KAEE harremanetan jarriko da beste aldearekin, egokien iruditzen zaion moduan eta ahalik eta lasterren, eskaeraren berri izan dezaten, bitartekaritzari buruzko informazioa eman diezaieten eta, gehienez ere, hamar eguneko epean, bitartekaritza-prozesuari ekiteko baimena eman dezaten.

Izapide horiek amaitu eta beste aldeak bitartekaritzari ekiteko baimenik ematen ez badu, KAEEren jarduera amaituko da, eta horren berri emango zaie eskatzaileei eta beste aldeari.

Hiru. Bitartekariaren izendapena

EKFBk onartutako bitartekarien zerrendatik izendatuko du KAEEk bitartekaria, hurrengo hiru egun balioduneko epean; hori bitartekariari jakinaraziko zaio, eta hark izendapena onartu beharko du, gehienez hiru egun balioduneko epean. Onartzen ez badu, KAEEk beste bitartekari bat izendatuko du, eta epe bera izango du izendapena onartzeko.

Lau. Bi aldeen ahalmena

Aldeetako bat pertsona juridikoa bada, bitartekaritza-prozesuaren barruko saioetan parte hartzen duten pertsonen izena, helbidea eta harremanetarako datuak jakinarazi beharko dizkio KAEEri. Era berean, bitartekaritza-saioetara aldeetako baten legezko ordezkari bat edo boluntario bat joaten bada, behar bezala egiaztatu beharko du bere ordezkaritza, eta bitartekaritza-saioa hasi baino lehen, eztabaidaren arrazoiari buruzko hitzarmenei uko egiteko, onartzeko, konprometitzeko eta hitzarmenak onesteko ahalmenak.

11. artikulua. Informazio-bilkura

Bitartekaritza hasi aurretik, informazio-bilkura batean parte hartuko dute aldeek. Bilkura horretan, bitartekariaren inpartzialtasunean eragina izan dezaketen arrazoien berri emango zaie aldeei, baita haren lanbidearen, prestakuntzaren eta esperientziaren berri ere; halaber, bitartekaritzaren ezaugarriak, kostua, prozeduraren antolaketa, lor daitekeen akordioaren ondorio juridikoak eta eratze-bilkuraren akta sinatzeko epea azalduko zaizkie aldeei.

Aldeetako bat arrazoirik eman gabe informazio-bilkurara agertzen ez bada, eskatutako bitartekotzari uko egiten diola ulertuko da.

12. artikulua.- Eratze-bilkura.

Aldeek eratze-bilkura batean parte hartuko dute, eta horri buruzko akta egingo da, hasierako bilkurarena edo bitartekaritzaren eraketarena, eta hor ondoko informazioa jasoko da:

Aldeen eta bitartekariaren identitatea, alderen batekin loturarik dagoen egiaztatzeko. Une horretan, aldeek bitartekariaren izendapena berretsi edo ezetsi dezakete, edo uko egin. Honako hauek zehaztuko dira: noiz egingo den, gatazkaren xedea, aldeek eta bitartekariak erregelamendu honi men egiten diotela, non egingo den eta zein hizkuntzatan izango den prozedura.

Bilkura horretan, bitartekaritzari buruzko informazioa emango da: printzipio gidariak, bitartekaritza-prozeduraren mende jartzearen ondorioak, gehienezko iraupena, har daitezkeen akordioen baliozkotasuna, eta aldeen eta bitartekariaren eskubideak eta betebeharrak.

Halaber, prozeduraren kostuen berri emango zaie aldeei. Ez da bitartekaritzarik hasi beharko aldeek ez badute idatziz adostasuna eman ordainketaren oinarriei buruz.

Behar diren bilkurak garatzeko plangintza ezarriko eta jakinaraziko da. Bitartekariak bitartekaritza horretarako beharrezkotzat jotzen diren bilkura-kopuruaren eta bilkura bakoitzaren iraupenaren berri eman beharko du, eta aldeekin adostu beharko ditu.

Aldeek eta bitartekariak bilkuraren akta sinatu beharko dute, eta bitartekaritzaren baldintzak eta beren gain hartzen dituzten betebeharrak ulertzen eta onartzen direla frogatzeko balioko du.

13. artikulua. Prozeduraren iraupena eta garapena

Bat. Bitartekaritzaren iraupena

Prozesu osoan, aldeak bitartekariarekin bilduko dira, hasierako bileran adostutako aldizkakotasuna errespetatuta. Prozeduraren iraupena ahalik eta laburrena izango da, eta jarduerak metatu, eta ahalik eta bilkura gutxien egingo da. Salbuespenezko kasuetan izan ezik, prozeduraren iraupena ez da 4 eta 6 bilkuratik gorakoa izango, eta ezin izango da bi hilabetetik gorakoa izan, hasierako edo eratzeko bilkuratik hasita.

Bi. Bitartekaritzaren garapena

Bitartekariak behar den denboraz deituko die aldeei bilkura bakoitzerako, bilkurak zuzenduko ditu, eta jarreren azalpena eta komunikazioa erraztuko ditu modu berean eta orekatuan.

Bitartekariaren eta gatazkan dauden pertsonen arteko komunikazioak aldi berekoak izan daitezke edo ez.

Bitartekariak alde guztiei jakinaraziko die horietakoren batekin bakarka egiten diren bilkuren berri, tratatutakoari buruzko konfidentzialtasuna gorabehera. Bitartekariak ezin izango du aldeak emandako informazioa edo dokumentazioa jakinarazi edo banatu, salbu eta hark horretarako berariazko baimena badu.

Hiru. Bitartekotza-prozeduraren aktak.

Bitartekaritza-bilkura bakoitzean gertatutakoa akta batean jasoko da, eta akta hori espedientean sartuko da. Eratze-akta eta azken akta alde guztiek eta bitartekariak sinatu beharko dituzte, Erregelamendu honetan adierazitakoaren arabera.

Lau. Azken aktak zehaztuko du prozeduraren amaiera.

Bitartekariak bitartekaritzaren azken bilkuraren akta egingo du, egindako bilkura guztien kopurua barne hartuta, eta honako hauek ere jasoko ditu: bilera egiteko tokia eta eguna, bertan parte hartu dutenak eta lortutako akordio osoak edo partzialak, edo, hala badagokio, akordiorik eza edo beste edozein arrazoik ekarritako amaiera. Alde bakoitzari kopia sinatua emango zaio eta jatorrizkoa espedientearen artxiboan gordeko da.

14. artikulua.- Bitartekaritzaren amaiera.

Bitartekaritza-prozedura akordioarekin edo adostasunik gabe amaitu daiteke, dela alde guztiek edo aldeetako batek jarduerak amaitutzat emateko eskubidea dutelako, bitartekariari jakinarazita, dela prozedurak iraun dezan aldeek adostutako gehieneko epea igaro delako, dela bitartekariak modu justifikatuan ikusten duelako aldeen jarrerak bateraezinak direla edo beste arrazoiren bat tartean delako.

Prozedura bukatutakoan, aurkeztutako dokumentuak itzuliko zaizkio alde bakoitzari.

Azken aktak prozeduraren amaiera zehaztuko du, eta, hala badagokio, lortutako akordioak argi eta modu ulergarrian islatuko ditu, edo beste edozein arrazoirengatik bukatu dela zehaztuko du.

Alde guztiek eta bitartekariak sinatu beharko dute akta, eta ale bana emango zaie bakoitzari.

15. artikulua.- Bitartekaritza-akordioa.

Bitartekaritza-akordioa bitartekaritzaren mende dauden gai batzuei edo guztiei buruzkoa izan daiteke. Bitartekaritza-akordioan honako hauek jaso beharko dira: aldeen nortasuna eta helbidea, izenpetzen den tokia eta eguna, alde bakoitzak bere gain hartzen dituen betebeharrak, aldeen edo haien ordezkarien sinadura, eta bitartekaritza-prozedura bat erabili dela, aplikatu beharreko araudian aurreikusitakora egokituta, esku hartu duten bitartekariak zein diren eta prozedura KAEEren bidez garatu dela adierazita.

Bitartekaritza-akordioaren ale bana emango zaie alde guztiei, eta beste ale bat bitartekariari gordeko zaio. Erabakia loteslea dela jakinaraziko da eta, aplikagarria denean, adieraziko da aldeetako edozeinek erabakia eskritura publiko bihurtzeko eska dezakeela, akordioa titulu betearazlea izan dadin.

III. BIDE TELEMATIKOEN BIDEZKO PROZEDURA ERRAZTUA.

16. artikulua. Aplikazio-eremua.

600 euro gainditzen ez dituzten erreklamazioak edo kopuru hori gainditzen ez duen beste interes batekoak direnean, bitarteko elektronikoen bidezko bitartekaritza-prozedura sinplifikatu bat garatuko da lehentasunez, salbu eta baliabide horiek erabiltzea aldeetako batentzat ezinezkoa bada edo aldeek beste prozedura bat adosten badute, eta aldeen asmoak zuzenbideko liskar-argudioei buruzkoak ez badira.

17. artikulua. Prozedura

Bitarteko elektronikoen bidezko bitartekaritza-prozedura sinplifikatua abenduaren 13ko 980/2013 Errege Dekretuak -zeinaren bidez, gai zibil eta merkataritza-gaietako bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legearen zenbait alderdi garatzen diren- V. KAPITULUAN ezarritakoaren arabera garatuko da, baita autonomia-erkidegoek ondorio horietarako garatzen duten legeriaren arabera ere.

Bitartekariak beharrezko mekanismoak gaitu beharko ditu aldeei segurtasuna, erabilitako sistema elektronikoaren funtzionamendu egokia, dokumentuen eta komunikazioen pribatutasuna, osotasuna eta sekretua, prozeduraren fase guztietan konfidentzialtasuna bermatzeko, eta datu pertsonalak babesteko araudian eskatzen diren aurreikuspenak betetzen direla bermatuko du.

IV. BITARTEKARITZAREN GASTUAK

18. artikulua. Zehaztapena eta aplikazioa

Prozedura arruntetako bitartekarien ordainsariak oro har EKFBk finkatuko ditu, eta prozedura bakoitzean parte hartzen duten aldeei jakinaraziko dizkie aldez aurretik.

Ordainsari horiei prozeduran sor daitezkeen gastuak gehitu beharko zaizkie.

Hasiera batean, bitartekaritzaren kostua, akordio batekin bukatu ala ez, berdin-berdin zatituko da aldeen artean, besterik itundu ezean.

Nolanahi ere, KAEEk beharrezkotzat jotzen dituen funtsak eskatu ahal izango dizkie aldeei, eta bitartekaritza bukatutzat emango da, baldin eta aldeek edo horietako batek eskatutako funtsak epearen barruan ematen ez badituzte.

Bide telematikoen bidez sinplifikatutako prozedurak doakoak izango dira aldeentzat, salbu eta gerta litezkeen gastuei dagozkienak, horiek sortu zituen aldeak ordainduko baititu.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau EKFBk onartzen duenean webgunean argitaratuko da, oro har hedatzeko egoki iritzitako publizitate-jarduerei kalterik egin gabe.